



Iurreta
Eleizateko Udala

IURRETako Legealdiko Plana 2015-2019

Legealdiko Plana fitxategian, Gobernu Taldeak udalerraren irudipenerantz aurrera egiteko estrategikotzat jotzen dituen ardatz nagusiak jaso dira eta legealdian zehar beren-beregi garatu nahi diren estrategiak zehaztu dira, baita zein proiektu edo jarduketa-ildotan eusten diren ere.

XEDEA

Iurretako Udala bere jarduera garatzen duen tokiko administrazio publiko bat da eta, bertan, herritarren zerbitzura dauden profesionalak eta kargu hautetsiek jarduten dute:

- ✓ Iurretako herritarrei pertsona giza garatzeko aukera emango dieten eta gizarteak kohesio handiagoa izatea ekarriko duten oinarrizko baldintzak ahalbidetzen dituzte.
- ✓ Iurretan dauden interes eta sentsibilitate ezberdinen arteko bizikidetzaren alde egiten dute.

IKUSPEGIA

Iurretako Udalak herritarren premiei erantzuna eman nahi die baliabide publikoak zorroztasunez, eraginkortasunez eta arduraz kudeatuz. Horretarako, hauxe egingo du:

- ✓ arreta hurbila eta pertsonalizatua eskaini
- ✓ parte-hartzea, komunikazioa eta gardentasuna sustatu

Hori guztia betetzeko, honako ardatz estrategiko hauek ezarriko ditugu legealdiko hurrengo lau urteetarako:

1. ARDATZA: HIRI BERRONERATZEA, MUGIKORTASUNA ETA ETXEBIZITZA

1.1 Etxebizitza babestua duten egoitzazko sektoreak garatzea gure lehentasunetako bat da; horretarako, etxebizitza babestua sustatzeko aukera eskaintzen duten guneak izango ditugu helburu. Paduretako eta Bideondoko guneek horretarako aukera handia ematen digute. Gainera, gazteentzako alokairurako laguntzekin jarraituko dugu eta etxebizitza hutsaren alokairua sustatzen duten neurriak proposatuko ditugu.

1.2 Herriaren erdialdea osorik leheneratzea sustatzea herri ingurune atseginagoa izateko, kaleen irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko, gure bizitza sozialerako. Horretarako, tokiko merkataritza eta herriaren erdialdean saltoki eta negozio berrien ezarpena sustatuko dugu, enpresa proiektuen lehiaketaren eta bezeroen kontzientziazio eta fidelizazio kanpainen bidez.

1.3 Lurretatik igarotzen den zatian, N634 errepidea hiri zeharbide bihurtzea, gaur egun lurreta bitan banatzen duen errepide hori herritarrentzat etorbide atseginago eta irekiago bilakatu nahi dugu, gure udalerrria egituratuko duena, eta, horrela, Bidebarrieta birgaitzeko aukera izan eta lurreta modu antolatuan garatu.

1.4 Herriaren erdialdean lurretako egoiliarrentzako eta herritarrentzako **aparkalekua hobetzea,** orain arte gidari izan ditugun bi printzipioetan oinarrituta: herritarrentzako lehentasuna eta tokiko merkataritzaren hobekuntza. Ildo honetan, Maspe egoiliarrentzako aparkaleku arautua duen gune bilakatuko dugu.

1.5 Oinezkoentzako aisia espazio berria sortzea, zati batean estalia, Askondon, gure herriaren erdialdean horrelako ekipamendu motei dagokienez dagoen urritasuna arintzeko.

1.6 Taxi-auzunearen alde egiten jarraitzea, auzoetako herritarrei beren beharretara egokitutako garraio sistema eskaintzeko, beren mugikortasuna eta zerbitzuetara jotzeko aukera hobetzeko.

1.7 Merkataritzarako etxabeetan etxebizitzak egiteko aukera arautzen duen udal araudia proposatzea.

1.8 Auzo erkidegoek antzinako etxebizitzak gaur egungo gizartearen kalitatezko estandarretara egokitu ahal izateko **birgaitze prozesuetan laguntzea,** igogailuak jarriz edo fatxadak eta estalkiak berrituz.

1.9 Bide publikoetatik eta udal eraikinetatik oraindik dauden **arkitektura oztopoak kentzeko neurriak proposatzea,** irisgarritasuna hobetzeko eta eskola barrutiko sarbideei arreta berezia eskainiz.

1.10 Lurretako HAPOaren berrikuspenaren azterketa eta izapidetzea hastea.

2. ARDATZA: AISIA, KIROLA ETA GAZTEAK

- 2.1** Belaunaldi desberdinei interesatu ahal zaien **aisia anitzeko eskaintza sustatzea**, besteak beste, ikastaroak, tailerrak eta elkarteekin koordinatutako jarduerak.
- 2.2** **Maiztegiko kirol azpiegiturak egokitzeko aukera aztertzea**, ikastetxeek eta udalerriko erakundeek garatzen dituzten jardueren **beharrizanetarako egokiak diren espazio estaliak izan daitezzen**. Era berean, **gure gazteen beharrei erantzuten dieten kirol-instalazioak sortuko ditugu**.
- 2.3** **Kirol elkarte eta klubentzako lankidetzak eta laguntza bermatzea**, gizarte eraketan eta balioen transmisioan oinarritzko zeregina betetzen duten eragileak diren aldetik.
- 2.4** **Lurretako gazteen itxaropenak ezagutzeko** eta, horretarako, gazteen foroa sortuko dugu, zuzenean ezagutzeko gure gazteek aisiako, kulturako, enpleguko edo etxebizitzako azpiegituren inguruko ekimen eta estrategia egokiak diseinatzeko planteatzen dituzten beharrizanak eta eskariak.
- 2.5** **Gazteei zuzendutako zeharkako proiektuen eta proiektu integralen alde egitea**, besteak beste, “Jar zaitetz martxan”, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Amankomunazgoarekin batera.
- 2.6** **Gazteei emantzipazio prozesuan laguntzea**, etxebizitza alokatzeko laguntzen bidez.
- 2.7** Bertoko **kiroletarako laguntza** ematea, gure kultur ondarearen oinarritzko alderdi gisa.
- 2.8** **Mugarri Eguna berriz egitea** berreskuratzea, lurretako herritar guztiek mugak ezagut ditzaten.

3. ARDATZA: EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

- 3.1** **Herriko bizitzaren eremu guztietan euskararen erabilera sustatzea**. Euskara eta kultura gure identitate ezaugarriak dira, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzak sustatu behar dugula ahaztu gabe, horiek ordezkatzen dituzten elkarteekin lankidetzak estuaren bidez.
- 3.2** Aurreko urteetan emandako urratsak sendotzea, **euskararen erabilera suspertzeko, udaletik herritarren hizkuntza aukera errespetatuz**.
- 3.3** **Familia transmisioa sustatzea hezkuntzan eta irakurketan**, ikastetxeekin, guraso elkarteekin... eta udal liburutegiarekin lankidetzan.
- 3.4** **.eus domeinua sartzea**; izan ere, euskara gainerako hizkuntzen maila berean jartzen duen tresna da eta euskararen normalizazioari lagunduko dio; gainera, gure hizkuntzari nazioarteko aintzatespena egiten dio.

- 3.5** Erakunde eta elkarte guztiei laguntza eskaintzea euskara sustatzeko eta euskal kultur ondarea berreskuratzeko.
- 3.6** Tokiko merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea bultzatzea, elkarteekin lankidetzan.
- 3.7 Kultur azpiegiturak egokitzea, garatzen ditugun jardueren beharrianetarako egokiak diren espazioak eskainiz.** Azpiegitura horiek egokitu egin behar dira, hobetzeko eta ahalik eta etekinik onena ateratzeko. Instalazio funtzionalak, eraginkorrak eta hainbat erabileratara egokitzeko modukoak behar ditugu. Ildo horretatik, **udal liburutegia handitzea eta hobetzea proposatuko dugu.**
- 3.8 Ibarretxe kultur etxean eta udal liburutegian kalitatezko kultur programazio anitza eta zabala** eskaintzea, eta, aldi berean, espazio publikoa kultur jardueren zentro gisa erabiltzea sustatuko dugu.
- 3.9 Kultur elkarteentzako lankidetzaren eta laguntza bermatzea,** gizarte eraketan eta herritarren partaidetzan aurrera egiteko oinarritzko zeregina betetzen duten eragileak diren aldetik.
- 3.10** Gure herriko **hezkuntza eta prestakuntza ekipamenduen hobekuntza eta mantentze lana** bermatzea, batez ere **Maiztegi ikastetxe publikoarena.** Bertan, energiaren eraginkortasuna hobetzeko neurriekin jarraituko dugu, leihateak eta barne argiztapena aldatuz, eta beharrezko administrazio-urratsak emango ditugu, irisgarritasuna bermatzen duen igogailuaz hornitzeko.
- 3.11 Hezkuntzarentzako laguntzei eustea, familientzako laguntza oinarri hartuta.**
- 3.12 Maiztegiarekin lankidetzan jarraitzea, jarduera osagarrietarako laguntza emanaz.**
- 3.13 Udal Eskola Kontseilua sortzea;** bertan, hezkuntza arloko udal eremuko eragile guztiak egongo gara, hezkuntzaren inguruko beharrianak bertatik bertara ezagutzeko, haurreskolarekin hasi eta Lanbide Heziketaraino.
- 3.14** Elkarte guztiek eta udalak berak herriko jaietan parte hartzea bermatzea.

4. ARDATZA: GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA MERKATARITZA

- 4.1 Enplegua eta suspertzea ekonomikoa lehenestea.** Tokiko eta eskualdeko baliabide guztiak erabili behar ditugu jarduera ekonomikoa, ETEen berrikuntza eta **enplegu egonkorren eta kalitatekoaren sorrera** sustatzeko. Horretarako, lehiakortasun poloa eta enpresen, prestakuntza zentroen eta Behargintzaren arteko lankidetzaren indartu behar ditugu.
- 4.2** Berezko erakundea sortzea, **eskualdeko turismo sektorearen garapenerako,** sustatzeko jarduera gisa, aberastasuna sortuko duena eta lurretaren eta Durangaldearen irudia zabaltzen eta hobetzen lagunduko duena, gizarte, ekonomia eta kultur errealitate gisa zehaztuta.

4.3 Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen dituzten eskualdeko enplegu programetan parte aktibo izaten jarraitzea.

4.4 Ekintzailtza sustatzea, Durangaldeko Amankomunazgoko Behargintzaren bidez; horretarako, azpiegitura egokiak sortuko ditugu eta finantzaketa formula berritzaileak identifikatuko ditugu, eta, azkenik, pertsona ekintzaileari lagunduko diogu.

4.5 Herriaren erdialdean saltoki eta enpresa txikiak ezartzea sustatzea, enpresa proiektuen lehiaketaren bidez.

4.6 Erdigunea dinamizatzearen alde egitea; horretarako, tokiko saltokietan kontsumoa sustatzeko ekimenak bultzatuko ditugu, aparkalekuaren antolaketa berriaren bidez, merkataritza zentroekin lehiatu ahal izateko.

5. ARDATZA: INGURUMENA ETA LANDA GARAPENA

5.1 Auzo eta kofradietako herritarren parte hartzea erraztea; horretarako, aldi behin, bilerak egingo ditugu, horien azpiegiturei eta bizi kalitateari eusteko eta horiek hobetzeko (hornikuntza, saneamendua, argiteria, aisia...).

5.2 Landa-gune dinamikoei eta garrantzitsuei eustea, geure identitate zeinuak babesteko.

5.3 Antzinako bideak berreskuratuko ditugu, auzoen eta herriaren erdialdearen arteko oinezkoentzako loturak errazteko.

5.4 Udalen arteko hitzarmenak sustatzea, **gure abeltzaintzako herri larreak sortzeko eta horiei eusteko.**

5.5 Tokiko produktuaren eta produktu ekologikoaren zuzeneko merkaturatzea sustatzea, eta, horretarako, asteko merkatuari eta nekazaritza azokari eutsiko diegu, baita sustatu ere.

5.6 Konbentzimenduan eta ez ezarpenean oinarritzen den bilketa jasangarriaren ereduaren alde egitea, eta jarraituko dugu herriguneetan bosgarren edukiontzia eta landa-guneetan autokonposta ezartzen.

5.7 Kontrolik gabeko isuriaren gune beltzak kentzea herri inguruko guneetan eta arau hausleei jarraipena egitea.

5.8 Ibaiertzak eta aldeak garbi mantentzeko ekimenak garatzea, administrazio eskudunekin lankidetzan.

5.9 Aisiarako eta aisialdirako guneen gizabidezko erabilerarako udal araudia garatzea.

5.10 Energia eraginkorrerako neurriak ezartzea, bai argiteria publikoetan, bai udal eraikinetan.

5.11 Birziklapenaren inguruko **sentsibilizazio eta motibazio** kanpainak egitea.

5.12 Udal titulartasuneko mendiak areagotzea: egoeraren ebaluazioa, baliabideen hobekuntza, herritarrei horiek badaudela eta horien ustiapena jakinaraztea. Gure helburua da **bertoko basoa berreskuratzea** udal titulartasuneko mendietan.

6. ARDATZA: GIZARTE EKINTZA

- 6.1 Gure helburua pertsonak dira eta, beraz, gure gizarte politiken erdigune izan behar dute.
- 6.2 **Adinekoen bizi kalitatea bermatzea, eta, horretarako, beraiantzako zerbitzuak indartuko ditugu.** Adinekoen kolektiboarekin lankidetzan jardungo dugu, beren elkarteen bidez, zein premia dituzten jakiteko; horretarako, baterako ekintzak proiektatuko ditugu Durangaldeko Amankomunazgoarekin. Kea antzemateko gailuen proiektua zabalduko dugu, harik eta 75 urtetik gorako pertsonak dituzten etxe guztietara heldu arte.
- 6.3 **Emakumeen ahalduntzea sustatzea, genero indarkeriari aurre egiteko.**
- 6.4 Gizarte kontziliazioko ekimenak indartzea; horretarako, baterako hezkuntzan lan egingo dugu, kirola berdintasunezko jarduera dela sustatuz.
- 6.5 **Amankomunazgoan berdintasunerako zerbitzua sortzea** sustatzea, eskualdeko ekimenak bateratzeko.
- 6.6 **Emakumeen kirola sustatzea**, eta, horretarako, klubei laguntzak eta banakako beka emango dizkiegu.
- 6.7 **Gazteengan** eragina duten ekimenak bultzatzea eta, horretarako, beren hezkuntzan eta portaera sexisten prebentzioan lan egitea.
- 6.8 Jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzak sustatzea, **truke eta elkar ezagutzeko kultur eta gizarte programen** bidez.
- 6.9 Hizkuntzak parekatzeko moduko programetan parte hartzea sustatzea.
- 6.10 Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzan laguntzea, eta, horretarako, ekonomia eta gizarte garapenerako proiektuak eta programak sustatu, finantzatu eta kudeatzea.
- 6.11 Udal mailan edo Amankomunazgotik denbora bankua sustatzeko aukera aztertuko dugu.

7. ARDATZA: PARTE HARTZEA ETA GARDENTASUNA

- 7.1 **Gure kudeaketan, parte-hartze eta gardentasun mekanismoak sustatzea.** Herritarrek parte hartzeko dauden ereduak aztertuko ditugu, gure eguneroko ekintzarako eredu egokia identifikatzeko eta txertatzeko.
- 7.2 Parte hartzeko bideak hobetzea, web orriaren eta sakelako telefonoetako app-en bidez, **herritarrek lotura zuzena eta etengabea eduki ahal izateko udalarekin.**
- 7.3 Sektore foroak dinamizatzea, interes orokorreko proiektuak garatzeko, eta **Tokiko Agenda 21en** eta Eskolako Agendaren **alde** egiten jarraituko dugu, eredu parte-hartzaile gisa.
- 7.4 **Udal kudeaketan erabateko gardentasuna sakontzea**, eta, horretarako, informazioa eskuratzeko erraztasunak eman eta hura ulergarriago egin behar dugu, gardentasunaren webgune bat sortuz.

- 7.5** Barne prozesuen kudeaketa hobetzea eta, horretarako, zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta gure administrazio izapideak sinplifikatzea.- Hori horrela, Herritarrei Arreta emateko Zerbitzua izan behar dugu helburu.
- 7.6** Aurrekontu orekaren printzipioari eustea eta gastu publikoan eraginkortasuna areagotzea.